

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRURAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal Batzarrak, bi mila eta hogeiko ekainaren bederatzian eginiko bilkuran, honako akordioa hartu zuen: Haurrak HH, LH edo DBHn matrikulatuta dauden Irurako udalerriko familiei irteerarako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzeko Udal Ordenantza behin betiko onartzea.

Berez, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honekin Eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa indarrean sar dadin.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurto jartzeko kalterik gabe.

Irura, 2020ko ekainaren 19a.—Gorka Murua Macuso, alkatea. (2992)

*Irurako udalerrian, haurrak ikastetxeetan, HH, LH edo DBHn matrikulatuta dituzten familiei, irteerarako diru-laguntzak emateko oinarriak onartzeko Udal Ordenantza.*

IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

*Diru-laguntzaren xedea.*

Araudi honen helburua, Irurako Udalerrian bertako edo inguruko ikastetxeetan, HHn, LHn edo DBHn matrikulatutako ikasleen familiei eskolako irteerarako gastuetarako diru-laguntzak arautzea da. Diru-laguntza jasoko duten familiek ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

*1. artikulua. Diru-laguntzaren xedea.*

Diru-laguntza honen xedea da Irurako Udalerrian bertako edo inguruko eskoletan HH, LH eta DBHn dauden ikasleen familiei eskolako irteerarako diru-laguntza ematea, herritarren artean desberdintasunik sor ez daitezen eta gizarteratzea bultzatzeko. Horregatik, Irurako Udalak diru-laguntzak emango dizkie tokiko edo inguruko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen familiei, dagokien ikasturtean eta hurrengo urteetan, ordenantza hau ukatu edo aldatzen ez bada.

*2. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.*

1. Iruran erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera aurkezten denean.

2. Irurako edo inguruko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea ikastaroan.

AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día nueve de junio de dos mil veinte, adoptó el acuerdo de aprobar definitivamente la Ordenanza reguladora para la concesión de subvenciones para excursiones a las familias del municipio de Irura que tienen matriculado/as a niños/niñas en la escuela en primaria, secundaria y ESO.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la Ordenanza para su entrada en vigor.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Irura, a 19 de junio de 2020.—El alcalde, Gorka Murua Macuso. (2992)

*Ordenanza Municipal por la que se aprueban las bases para la concesión de subvenciones a las familias del municipio de Irura, para la realización de salidas escolares de niños/as matriculados en Educación Infantil, Primaria o ESO.*

DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

*Finalidad de las bases.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de la concesión de subvenciones a familias que tienen matriculados a hijos/as en los colegios de Educación Infantil y Primaria, o ESO en Irura u otros pueblos de la zona, para los gastos de salidas escolares. Las familias que quieran optar a dichas subvenciones deberán cumplir con los requisitos que se detallan en los siguientes artículos.

*Artículo 1. Finalidad de la subvención.*

El objeto de la presente subvención es subvencionar las salidas escolares a las familias de alumnos/as de Educación Infantil, Primera y ESO del municipio de Irura o de otros municipios de la zona, con el fin de evitar desigualdades entre la población y favorecer su integración social. Por ello, el Ayuntamiento de Irura concederá subvenciones a las familias de los alumnos/as matriculados en colegios locales o de la zona durante el curso que proceda y durante los años siguientes, salvo que se deniegue o modifique la presente Ordenanza.

*Artículo 2. Requisitos para ser personas beneficiarias.*

1. Estar empadronado y tener la residencia efectiva en Irura a la fecha de presentación de la solicitud.

2. Estar matriculado/a en el curso en algún colegio de Irura o alrededores.

3. Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.

4. Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen batek emandako diru-laguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, diru-laguntza murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

### 3. artikulua. Diru-laguntzak zehazteko irizpideak.

Irurako edo inguruko ikastetxe batean matrikulatuta dituzten ikasleen familiek diru-laguntza jaso ahal izateko, ondorengo irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Familia unitateek, gutxienez gastuaren % 10 ordaindu beharko dute.

– HH maila guztietan, LH 1., 2., 3., 4., eta 5. mailan, eta DBH 1., 2., eta 3. mailan matrikulatutako ikasleen familiek, ikasturtean gehienez 100 € jasoko dituzte.

LH 6. mailan eta DBH 4. mailan matrikulatutako ikasleen familiek, ikasturtean gehienez 200 € jasoko dituzte.

– Familia unitatearen hileko diru-sarrerei, etxebizitza gastutik gehienez 550 € kenduta, kideen araberako DBE kopurua izango da muga. 3 kide baino gehiagoko familia unitateetan, 4. kidetik aurrera kide bakoitzeko % 5 gehituko da.

2020ko hileko baremo ekonomikoa, DBEren eta kideen araberakoa:

1 - 693,73 €.

2 - 890,81 €.

3 - 985,41 €.

4 - + % 5 - 1.034,68 €.

5 - + % 5 - 1.086,41 €.

6 - + % 5 - 1.140,74 €.

7 - + % 5 - 1.197,77 €.

8 - + % 5 - 1.257,66 €.

Zenbateko hau deialdi bakoitzean eguneratuko da.

– Hileko diru-sarrera guztiak kontuan hartuko dira, ondorengoak izan ezik:

Mendekotasun prestazioak.

Gizarte Segurantzako prestazioak seme-alabengatik.

Bekak.

Eusko-Jaurlaritzako diru-laguntzak haurren jaiotzagatik.

– Familia unitatetzat, ikaslearen guraso eta anai-arrebak hartuko dira.

4. artikulua. Eskaerak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1. Diru-laguntza jasotzeko eskubidea dutela uste duten familiek, udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera, ondorengo agiri hauekin batera:

– Eskatzailearen NAN, AIZ edota indarrean dagoen beste edozein nortasun agiri.

– Familia liburua.

– Ikaslea, Irurako edo inguruko ikastetxe batean matrikulatuta dagoela adierazten duen agiria.

– Ikasturteko irteeren aurreikuspena, eta ahal bada aurrekontua.

– Eskatzailearen kontu korrontea eta titulartasuna adierazten duen bankuko agiria.

3. No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

4. Estas subvenciones son compatibles con las subvenciones concedidas por otra institución pública o privada. De todas las maneras, no podrá darse ningún tipo de sobre-financiación. En el caso de que así suceda, se reducirá la subvención, hasta el límite máximo correspondiente.

Artículo 3. Criterios para la determinación de las subvenciones.

Las familias que tienen matriculados a hijos/as en colegios locales o de alrededores que deseen beneficiarse de esta subvención, deberán cumplir los siguientes requisitos:

– Las unidades familiares deberán abonar como mínimo el 10 % del gasto.

– Los familiares de los alumnos matriculados en los cursos escolares de Educación Infantil, Educación primaria 1.º, 2.º, 3.º, 4.º y 5.º curso, y 1.º, 2.º y 3.º de ESO, percibirán un máximo de 100 €.

Los familiares de los alumnos matriculados en los cursos escolares de 6.º de Educación Primaria, y 4.º de ESO, percibirán un máximo de 200 €.

– Una vez deducidos de los ingresos mensuales de la unidad familiar hasta un máximo de 550 € del gasto de vivienda, el límite será la cantidad de RGI por miembro. En las unidades familiares de más de 3 miembros, a partir del 4.º miembro se incrementará en un 5 % por cada miembro.

Baremo económico mensual para el año de 2020 por RGI y miembros:

1 - 693,73 €.

2 - 890,81 €.

3 - 985,41 €.

4 - + 5 % - 1.034,68 €.

5 - + 5 % - 1.086,41 €.

6 - + 5 % - 1.140,74 €.

7 - + 5 % - 1.197,77 €.

8 - + 5 % - 1.257,66 €.

Esta cantidad se actualizará en cada convocatoria.

– Se tendrán en cuenta todos los ingresos mensuales, excepto los siguientes:

Prestaciones por Dependencia.

Prestaciones de Seguridad Social por hijos/as.

Becas.

Prestaciones del Gobierno-Vasco por nacimiento de niños.

– Se considerará unidad familiar a los padres y hermanos del alumno/a.

Artículo 4. Solicitudes, documentación y plazo de presentación.

1. Aquellas familias que consideren que pueden tener derecho a la subvención, deberán presentar la solicitud en el Ayuntamiento, acompañada de la siguiente documentación:

– DNI, NIE o cualquier otro documento de identidad en vigor del solicitante.

– Libro de familia.

– Acreditación de tener matriculados al/los niño/s en un colegio de Irura o de alrededores.

– Previsión de salidas del curso y si es posible presupuesto.

– Documento bancario donde conste el número de cuenta y titularidad del solicitante.

– Familia unitatearen diru-sarrera guztiak zuritu beharko dira: nomina, agiri, ebazpen... eta zinpeko aitortpena.

2. Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

Eskaera onartu ondoren, Udalak beharrezkoak dituen agiri edo argibide guztiak eskatu ahal izango ditu.

Jarduera baterako diru-laguntza eskaera aurkezte hutsak diru-laguntza arautzen duten oinarri hauen edukia ezagutzera eta onartzea dakar.

3. Urteko deialdiak zehaztuko ditu eskaerak aurkezteko epea eta beharrezko dokumentazioa. Deialdia alkatearen dekretuaren bidez onartuko da eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.

#### 5. artikulua. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostuaren % 90 baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza, oinarri hauen kargura murriztuko da.

#### 6. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, dagokion txosten teknikoaren irizpideak jarraituz, diru-laguntza eman edo alkatearen dekretuaren bidez erabakiko da.

#### 7. artikulua. Berariazko ebazpenik ez hartzea.

Urriaren 1eko, 39/2015 legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 24. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorritik, diru-laguntza eskaerak ezetsi egingo dira baldin eta, eskaerak aurkezteko finkatutako epea amaitu eta 3 hilabeteko epean, berariazko ebazpenik hartu ez bada.

#### 8. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira diru-laguntza honen onuradunek bete beharrekoak:

– Irurako Udalarri aditzera eman beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, onuradunak beste diru-laguntzaren bat eskuratu duen.

– Irteera bakoitzean ordaindutako kopuruaren agiria aurkeztu.

– Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako bete-behar orokorrak bete beharko dituzte.

#### 9. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.

Alkatetzaren Dekretu bidez dagokion erabakia hartu ostean, eskatzaileak egindako ordainketen agiria aurkeztu ondoren (% 10 familiak ordaindu behar duela kontuan hartuz), udala ordaintzen joango da, ume bakoitzean kopuruaren gehiengora iritsi arte (ikus 3. artikulua).

Salbuespen gisa, egoera aztertu eta adostu ondoren, ordainketa ikastetxeari edo guraso elkarteari egin ahal izango zaio.

– Se deberán justificar todos los ingresos de la unidad familiar: nómina, certificado, resolución... y declaración jurada.

2. Cuando se compruebe que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámites, de acuerdo con la normativa vigente.

Una vez admitida la solicitud el Ayuntamiento podrá solicitar cuantos documentos o aclaraciones considere convenientes.

La mera presentación de solicitud de subvención para una actividad, implica el conocimiento y aceptación del contenido de las presentes bases que regulan su concesión.

3. La convocatoria anual determinará el plazo de presentación de solicitudes y la documentación necesaria. La convocatoria se aprobará por Decreto del Alcalde y se publicará en el Boletín Oficial correspondiente.

#### Artículo 5. Compatibilidad de las ayudas.

1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el 90 % del coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procederá, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo a las presentes bases.

#### Artículo 6. Instrucción del procedimiento.

Presentada la documentación requerida, siguiendo los criterios de los informes técnicos correspondientes, la subvención se concederá o se decidirá mediante Decreto del Alcalde.

#### Artículo 7. Falta de resolución expresa.

De conformidad con lo previsto en el artículo 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención serán desestimadas si, en el plazo de 3 meses desde la finalización del plazo establecido para su presentación, no recae en resolución expresa.

#### Artículo 8. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de la presente subvención deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

– Comunicar al Ayuntamiento de Irura si, para la realización de esta actividad subvencionada por el mismo, el beneficiario ha obtenido alguna otra subvención.

– Presentar el justificante del pago realizado por cada salida.

– Cumplir cuantas obligaciones estén establecidas con carácter general en la normativa vigente para todos los receptores de ayudas o subvenciones.

#### Artículo 9. Pago de la subvención.

Una vez adoptado el acuerdo correspondiente mediante Decreto de Alcaldía, una vez presentado el justificante de los pagos realizados por el solicitante (teniendo en cuenta que el 10 % corresponde a la familia), el Ayuntamiento irá abonando hasta alcanzar el límite por niño (ver artículo 3).

Excepcionalmente, una vez analizada y acordada la situación, el pago podrá realizarse al centro escolar o a la asociación de padres/madres.

**10. artikulua. Diru-laguntza aldatzea.**

Diru-laguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta nolahi ere, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik norgehiagokaren bidez laguntzak jasotzen badira, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

**11. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.**

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Diru-laguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

**12. artikulua. Jarraipena.**

Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak laguntzen jarraipena egingo du, eta hobetzeko, egokitzeko edo eguneratzeko proposamenak egin ahal izango ditu.

**13. artikulua. Ordezko araudia.**

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeek aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailek 21eko 88/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

**14. artikulua. Diru-laguntzetarako bideratutako kopurua.**

Diru-laguntzen deialdi hau gauzatzeko diru-hornidura urteko udal-aurrekontuan sartuta egongo da.

Bideratutako partidak eskari guztiei erantzuteko saldo nahikorik ez badu, udalak murrizketa bat aplikatu ahal izango du.

**Artículo 10. Modificación de la subvención.**

Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.

**Artículo 11. Incumplimiento.**

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones que se prevén en la presente convocatoria por parte del beneficiario, conllevará la resolución o minimización de la subvención. En todo caso será de aplicación lo señalado en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa concordante.

**Artículo 12. Seguimiento.**

La Comisión Informativa de Servicios Sociales realizará el seguimiento de las ayudas y podrá realizar las propuestas de mejora, adaptación o actualización que corresponda.

**Artículo 13. Normativa supletoria.**

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Locales, especialmente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 88/2006, de 21 de julio.

**Artículo 14. Cantidad destinada a subvenciones.**

La dotación destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones estará incluida en el presupuesto anual municipal.

En el supuesto de que la partida destinada no disponga de saldo suficiente para atender todas las demandas, el ayuntamiento podrá aplicar una minimización.